

ek!


eta kitto!
euskara elkarte

2023ko maiatzak 26 · 1272 zenbakia

IBILALDI DIDAKTIKOAK GARIEN ARTEAN

www.urrategiinteriorismo.com
Elder Auzopertis 27 Auzopertis Artea 9

PROIEKTUAK
SUKALDEAK
BARNE DISEINUA



URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

gremioen gida



943-206776

ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E.



KRISTALAK

ACHA *Kristaldegia*
HELBIDE BERRIA
J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com ERAKUSKETA
eta faxa: 943 203 903 Arkitaneko Zuhian

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toloak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkiza 26an (Tel. 943 12 74 01)

IGELTSEROAK



Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitein Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

Tel. 667 54 89 16
KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

ELEKTRIZITATEA

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko argentziak
610 532 922 www.thelecer.com

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Rugby 7 modalitateko Erreginaren Koparen lehiaketaren bigarren jardunaldia jokatu da asteburu honetan (maiatzak 27 eta 28) Unben eta horren aurkezpena egin zuten eguaztenean. Iñaki Arrizabalaga Eibar Rugby Taldeko presidentea gonbidapena egin zigun herritar guztioi.



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Sosola

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Hiri guztiz eredugarria

Maiatzaren 17a, hauteskunde kanpaina, ekitaldi bi batera leku berean, Errebal plazan. Akebai! plataformak antolatuta *Hizkuntz eskubideak, denon auzia* izenburupean bata eta *"Eibarko ekialdeari buruzko hauteskunde eztabaida"* (sic) izenekoa bestea.

Irakurle finak zaretenez, ez da zaila asmatzea batean eta bestean bildutako herritar kopurua. Lehenengoan 15 bat lagun eta bigarrenean 300 lagunetik gora. Ez da harritzekoa herriko eta auzoko auziek interes gehiago piztea hizkuntz eskubideen gaineko hitzaldi batek baino. Are gehiago zenbait auzotar zuzenean kaltetua baldin bada eta hurrengo 4 urteotan erabakiak hartuko dituzten hautagaiei euren asmoez zuzenean galdetzeko aukera baldin badago.

Inbertsioak, paseo berria, ekipamenduak, behealdeko eraikin eta kaleetako egoera... Interes handiko gaiak ia 3 ordu iraun zuen bilkuran. Eta hiru ordu horietan zenbat denbora eskaini zitzaion *"nuestra lengua"*? Pentsatu duzuen moduan; hutsaren hurrengo! Bai. *...eta kitto!ko irakurleok ondotxo* dakizue gai "serioak" direnean, sarritan euskararen aldeko aldarriak egiten dituzten alderdiek, salbuespenak salbuespen, nagusiki espainolari ematen diotela presentzia eta prestigioa plaza publikoan.

Behatokiko zuzendariak, Agurne Gaubekak, egun berean eskainitako hitzaldi bikain bezain interesgarrian, besteak beste, euskararen erabilera indartu eta egunerokotasunean, administrazio publikoetan, Osakidetzan, pos-tetxean, bankuetan, notariotzan eta abarretan hizkuntza ohiturak aldatu beharraz eta euskal hiztunon ahalduntzeaz jardun zuen.

Hiri guztiz eredugarriko agintari izateko hautagaitza aurkeztu duten guztiak argi izan beharko lukete euskararen iraupenerako oinarrizkoa den kontua; eta aukera dutenean, jendaurrean, herriko plazan edo batzar-aretoan, itxurarako baino, eredugarri izateko baliaitu beharko lituzkete horrelako agerraldiak.

Osterantzean, itxurakeria hutsa baino ez da, *Euskaraz eta kitto!* bandoaren 40. urteurrenaren harira, udalbatzar-rrak aho batez onartutako testu berrian jasotakoa: *Euska-ra, es mi lengua y tu lengua, eibartar guztiona!*

Iñaki Amuategi Basauri

Autokritika eza ikusita, ezin gara isilik geratu

15 urteko jirabuelten ondoren, ...eta kitto!-ko azken alean Errebal buruz autokritika eza ikusita, ezin gara isilik geratu. Politikan ez du denak balio, PSEko alkategaiari autokritika pixka bat eskatzen diogu.

Merkatu plaza zaharra bota zenetik autokritika eskatzen dizugu. Lehenengo orubearen salmenta, gero eraikin bat egiteko berreresketa, eta gero, egindakoa. Partehartze prozesuan gauza bat onartu eta beste bat egin duzue. Prozesu horretan ez zen egon, gu bai. Beraz, hitz egin aurretik, entzuten ikasi behar da.

Iraola jauna, Errebalen historia ondo ezagutzen ez baduzu, guk kontatu eta frogatu ahal izango dizugu nahi duzunean. Baina, mesedez, ez saiatu zuritzen xaboiak bueltarik ez duen zerbait. Gainera, baloiak kanporatu besterik ez duzu egiten, errua besteei bota nahian. Bakoitzak har ditzala bere ekingintzen ardurak.

Errebal Bizirik Herri Elkartea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OPATSU → Eskuzabala, emanzalea. "Zan gizon bat opatsua, bererik ezer ez eukana".
OR-EZPENGO → Hor ez bahengo. Leku aldrebes eta desegoki samarrean zegoen terrenuari ipini zioten izena. "Bolingua eta Sansaburu bittartian zan Or-ezpengo".

1971

Eibarko Klub Deportiboko dantzariak

Arrateko santutegian Plazaolak egindako argazkia 1971ko maiatzaren 23koa da. Euskal dantzek bide luzea egin dute Eibarko Klub Deportiboaren eskutik. 1958an, Juan San Martinek proposatuta, Batzorde Artistiko-kulturala eratu zen eta, horren barruan, dantzak indarrarekin ekin zion bideari.



Farmaziak

BARIXAKUA 26
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ZAPATUA 27
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
DOMEKA 28
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 29
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
MARTITZENA 30
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUAZTENA 31
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 1
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
BARIXAKUA 2
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI, 2023an,
Castaño (J. Etxeberria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Alicia Bergaretxe Gandiaga**. 94 urte. 2023-05-18.
- **Corona Fernandez Conde**. 95 urte. 2023-05-21.
- **Alejandro Fernandez Suarez**. 70 urte. 2023-05-21.
- **Xabier Alberdi Iturbe**. 59 urte. 2023-05-22.
- **Javier Rubio Gomez**. 52 urte. 2023-05-22.

Jaiotakoak

- **Walid Bou-Ichlif**. 2023-04-24.
- **Teresa Ruiz de Galarreta Gisasola**. 2023-05-18.
- **Lorea Cordoba Villaquiran**. 2023-05-19.



Zapatuko jaialdian parte hartu zutenei esker ona azaldu nahi die Eibar Saskibaloiak

Eibar Saskibaloiak jaialdi ederra ospatu zuen zapatuan, Ipurua kiroldegian. Bertan, taldeko jokalariez gain, familia eta lagunek ere izan zuten saskibaloian jokatzeko aukera. Goiz osoan zehar burutu ziren jarduerak antolatzen ibili zirenek eta Eibar Saskibaloia taldeak eskerak eman nahi dizkiete jaialdian parte hartu zuten guztiei, “eta jolas eta proba ezberdinetan irabazi zuten guztiak zoriondu. Eskerrak ere,

noski, jaialdiko jarduera guztiak ahalbidetu zituzten boluntario guztiei eta Udaleko Kiroletako sailari, instalazioak erabiltzeko emandako erreztasunengatik”.

Bestalde, azken aldian asko handitzen doan Eibar Saskibaloia taldean parte hartu nahi dutenek saskieibar@gmail.com helbidera idatzita beraiekin harremanetan jarri ahal direla gogorarazi nahi diote jendeari.

Minbiziaren kontra Eibarren egingo den martxako kamisetak salgai

Ekainaren 17an Minbiziaren Aurkako Martxaren bigarren edizioa egingo da, Untzagatik 11:00etan hasita. Parte-hartzaileek 3 kilometroko ibilbidea bete beharko dute eta herria berdez janztea da antolatzaileen helburua, korrikalariek kamiseta berdea eramango baitute soinean. Kamisetak Untzagako Jubilatuen Etxean, Amaña es la Caña kioskoan edo Minbiziaren Aurkako Elkartearen egoitzan (Ardantza kaleko 11. zenbakian, 10:00etatik 13:00etara) erosi daitezke.



“Altxorraren bila” eta “Narrastiak ezagutzen” antolatu ditu Baso Biziak-ek

Eibarko Baso Biziak taldeak bi jarduera antolatu ditu ekainerako. Iñigo Gisasolaren laguntzarekin, “Altxorraren bila” irteongo dira ekainaren 4an, domekan. Untzagan elkartuko dira, 09:30ean, eta bertan taldeka proba bat egin eta gero, parte-hartzaileek pista bat jasoko dute. Jarraian landa eremurantz abiatuko dira, 7,5 kilometrotako ibilbidean zehar kutxa-bila aritzeko. Amaieran saria jasoko dute.

Ekintza euskaraz izango da eta ura, mendiko arropa eta oinetakoak, pistak gordetzeko motxila, argazkiak ateratzeko mobila eta iparrorratza eraman beharko dira. Eta ekainaren 10ean, zapatua, Eibarko narrastiak ezagutzeko irteera egingo da, Aranzadi zientzia elkarteko Ander Izagirrek lagunduta. Untzagatik abiatuko dira, 09:30ean, eta mendibuelta egingo dute Arrajola Amazabalegi ingurutik.



Burgos ezagutzeko bidaiak kulturala egin du Pagatxak

Argazkietan ikusten dituzuen eibartarrak zoragarri ibili dira Burgos aldean, Pagatxa emakume elkarteak antolatutako txango kulturalan. 60 bat andrazkok osatutako taldeak hainbat egun eman ditu Gaztela Leonen, batetik bestera, toki eta paraje ederrak ezagutzen: besteak beste, Espainiako herri politenen artean dauden Lerma eta Covarrubias ikusi

dituzte, baita Santo Domingo de Silos monasterioa ere. Bertan egindako bisita gidatuari esker, Espainiako arte erromanikoaren adierazgarri onen artean dagoen klaustroari buruzko hamaika gauza interesgarri ikasi zituzten. Eta naturaz gozatzeko aukera ere ondo aprobetxatu zuten eibartarrek, La Yeclako haitzartean egindako ibilaldian.



FUNEUSKADI
Funerariak

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO KREMATOARIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p> <p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	<p>Elgoibar: Xizillon, 1/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marquis de Valdespina, 18</p>
---	--

Corona Fernandez Conde

2023/05/21

"Zuk ereindako apaltasuna, irribarrea eta eskuzabaltasuna gudan loratuko dira"

- ESKERRIK ASKO - eman diguzun maitasun guztiagatik, AMA-AMAMA



Haurrentzako udako igeriketa kanpainan izena eman daiteke

2020an eta aurretik jaiotako umeentzako igeriketa kanpaina abiatu du Eibarko Kirol Patronatoak: ekainaren 26tik uztailaren 21era arte irauango du eta dagoeneko izena eman daiteke. Aurreinskripzioak maiatzaren 28ra arte egin daitezke, Ipurua eta Orbea kiroldegietako atezaintzetan edo, bestela, eibarkirola.eus webgunean. Ondoren, zozketa egingo da ekainaren 1ean eta emaitzak hurrengo egunean, 2an, iragarriko dira. Zozketan parte hartu dutenen izenemateak ekainaren 5etik aurrera egingo dira, beti ere aurrez aurre. Zozketatik kanpo izena eman ahal izango da, ekainaren 14an (abonatuak) eta 15ean (bazkide ez direnak). Maila-probak, bestalde, ekainaren 1ean egingo dira, aurretik hitzordua zehaztuz actividades@eibarkirola.eus helbidean. Saioen iraupena 40 minutukoa izango da eta txankletak erabili beharko dira derrigorrez.



Sevillana dantzariak Jerezko ferian

Jerezko ferian egon dira Eibarren sevillanak ikasten dituzten emakume batzuk. Astero-astero batzen dira Portalea kultur etxean, sevillanak dantzatzeko ikasteko, eta aurten Jerezera joatea erabaki dute, ikasitakoa praktikan ipintzeko. Esperientzia zoragarria izan dela esan digute: “Gelditu barik ibili gara. Dantza gure pasioa da eta primeran pasatu dugu. Oso pozik bueltatu gara”.

Eibar 25.a da estatuan errentarik altuena duten herrien zerrendan

Estatistika Institutu Nazionalak (INE) 2020. urte fiskalaren datuak jakitera eman ditu, bertan estatuko per capita errentaren arabera zerrenda osatzearekin batera. Bertan, agertzen denez, Eibar 25. postuan dago 16.077 euroko errentarekin eta Gipuzkoako laugarrena da Donostia (11. postuan), Zarautz (14. postuan) eta Arrasateren (20. postuan) atzetik.





LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarguak etxera



Urtzi Antxustegi
(688 649 837)

09:30/19:00 **EROSKI-n**

LEHEN ORAIN





20.553 hautesle egongo dira Eibarren hurrengo hauteskundeetan. SILBIAHERNANDEZ

Aldaketak hautesleku batzuetan domekako hauteskundeetarako

Udal eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak izango ditugu domekan eta zenbait aldaketa izango ditugu herrian. Hautesleku batzuk desagertu egingo dira eta berriak ezarriko dituzte. Hala nola, Errebal Plazan eta Torrekua anbulatorio zaharrean eman ahal izango dute bozka hainbat eibartarrek.

Domekan, hilaren 28an, Eibarko alkatea nor izango den aukeratuko dugu. Lau urte pasa dira azken Udal Hauteskundeetatik eta iluntzean jakingo dugu Jon Iraolak alkate jarraituko duen ala beste hautagaiak nagusituko diren. Izan ere, 20:00etan amaituko da goizeko 09:00etan hasiko den bozketa eta, ondoren, kontaketa egingo da.

Eibarren 20.553 lagunek izango dute bozkatzeko aukera (batzuek eman dute botoa dagoeneko posta bitartez) eta etxean jaso

San Andres eskolako, Coliseoko, Amañako parrokiako eta Ego Gain gerontologikoko hauteslekuak kendu, eta Errebal Plazak eta Torrekua hartuko diete tokia

duten errolda-txartelean bozka non egin beharko duten adierazi zaie. Oraingo honetan adi ibili txartelean jartzen duenarekin, aurreko urteetakoarekin alderatuz aldaketak egon baitira herriko zenbait hauteslekutan.

Alde batetik, betidanik San Andres eskolan (bai areto nagusian bai jangelan) zein Coliseo Antzokian jarri izan diren hauteskunde-mahaiak Errebal Eraikinera (A eta B lokaletara) lekualdatuko dira, eta sarbidea Merkatu kaletik eta Muzategi kaletik egingo da.

Bestalde, Amañako lokal parrokiaketako eta Ego-Gaineko egoitzako hauteskunde-mahaiak Torrekua anbulatorio zaharraren eraikinera lekualdatuko dira, Torrekua kaleko 1 zenbakian kokatuta dagoenera.

Gauzak horrela, hauek dira herrian egongo diren hauteslekuak: Udaletxea, Arrateko Andra Mari ikastetxea, Torrekua, Amañako Dorreak, Errebal Plazia, E.P.A. eta Urkizu ikastetxea.

Botoa emateko identifikazioa

Bozkatzeko orduan, honako dokumentu hauek erabili ahal izango dira: Nortasun Agiri Nazionala (NAN), pasaportea (argazkiarekin), gidabaimena (argazkiarekin eta MiDGT aplikazioaren bidez ere balio du), bizileku-txartela (Europar Batasuneko herritarren kasuan) eta nortasun-agiria (Espainiarekin udal-hauteskundeetan botoa emateko eskubidea aitortzeko elkarrekotasun-ituna sinatu duten herrialdeetako atzerritarrek badira).

Dokumentu horiek espainiarrak edo jatorrizko herrialdeak emandakoak izan daitezke, betiere titularraren argazkia badute. Berdin dio iraungita badaude, baina jatorrizkoak izan behar dute, ez dute fotokopiak balio.

HAUTAGAIEN ZERRENDAK

PSE-EE

1. Jon Iraola.
2. Sonia Archeli.
3. Andoni Zabala.
4. Vanesa Hortas.
5. Alberto Albistegui.
6. Ana Telleria.
7. Patxi Lejardi.
8. Patricia Arrizabalaga.
9. Pedro Escribano.
10. Idoya Sarasqueta.
11. Ander Curiel.
12. Isabel Isidora Andres.
13. Daniel Santos.
14. Milly Lucia Tifa.
15. Gabriel Saro.
16. Carlota Utrera.
17. Andoni Amezttoy.
18. Mertxe Unanue.
19. Arcadio Benitez.
20. Maria Isabel Larrauri.
21. Miguel De Los Toyos.

ELKARREKIN PODEMOS

1. Isabel Fdez. Pejenaute.
2. Ander De los Mozos.
3. María Aranzazu Arrieta.
4. Alejandro Azcárate.
5. Tomás Azkue.
6. Iciar Albeniz.
7. Miguel Angel Usobiaga.
8. María Arrate Albeniz.
9. Juan Sanchez Vallejo.
10. Alaine Aguirrebeña.
11. José Javier León.
12. María Isabel Postigo.
13. José Luis Notario.
14. Ana Isabel Rodrigo.
15. Pedro Zubiaurre.
16. Nerea Gredilla.
17. Xabier Galet.
18. Esther Alcelay.
19. Román Basurto.
20. Nuria Pizarro.
21. Celso Ganado.

EAJ-PNV

1. Josu Mendicute.
2. Amaia Albizu.
3. Elena Ibañez.
4. Mertxe Garate.
5. Jon Perez.
6. Alberto de la Hoz.
7. Aiora Arrieta.
8. Patricia Guruzeta.
9. Iker Badiola.
10. Irma Iris Ruiz.
11. Ana Maria Alberdi.
12. Josu Agirre.
13. Begoña Muguruza.
14. Elene Muniategi.
15. Oscar Alberdi.
16. Miguel Angel Valenciaga.
17. Ivan Honrubia.
18. Ione Telleria.
19. Maria Isabel Azpiazu.
20. Pillipa Milikua.
21. Isabel Elorza.

PP

1. Julen Robles.
2. Mila Urizar.
3. Marta Arce.
4. Javier Delgado.
5. Jose Ignacio Gutierrez.
6. Maria Coro Castro.
7. Ignacio Calle.
8. Maria Teresa Gonzalez.
9. Isidoro Sanchez.
10. Maria Fournier.
11. Jorge Jimenez de Cisneros.
12. Valeria Angela Gomez.
13. Jose Maria Arribas.
14. Laura Lopez.
15. Ramon Marti.
16. Eulalia Aberturas.
17. David Rico.
18. Esperanza Jaume.
19. Igor Gonzalez.
20. Sonia Sanchez.
21. Maria Teresa Santos.

EH BILDU

1. Arantza Mata.
2. Gorka Errasti.
3. Nerea Barruetabeña.
4. Julian Diaz.
5. Hiart Cabrera.
6. Leire Alberdi.
7. Gorka Novoa.
8. Ainhoa Ormazabal.
9. Aitor Blasco.
10. Naiara Sanchez.
11. Alberto Losada.
12. Anafran Astigarraga.
13. Mikel Uriguen.
14. Izaskun Bustinduy.
15. Julen Teran.
16. Aizpea Izagirre.
17. Iñigo Muñoa.
18. Miren Baranguan.
19. Jose Angel Gimare.
20. Eneko Escudero.
21. Begoña Vesga.

ALKATEGAIAK MOTZEAN (BIDEOAK)

JON IRAOLA



JOSU MENDICUTE



ARANTZA MATA



ISABEL FDEZ.



JULEN ROBLES





Karmelitak 1935ean ailegatu ziren Eibarrera, Txonta kalera. Gaur egungo elizaren lehen harria 1951n jarri zen (argazkian). INDALECIO OJANGUREN-GURE GIPUZKOA

Drogen arazoak konturatzen ziren komentu barruan. Ezagutzen zituzten hainbat familiak, drogekin arazoak zituzten. Garai iluna, dramatikoa. Familientzat ez zegoen laguntza espezifikorik, eta haiek gehienbat espirituala ematen saiatzen ziren.

Drogak Eibarren 80-90. hamarkadetan

Julio Arbulu Gallastegi Aita Julio
(1936)



Julio Arbulu Gallastegi, Ubera auzoko (Bergara) Urrupain baserrian jaio zen 1936ko azaroan, gerrako bi fronteen artean: Intxortan errepublikarrak eta beste aldean nazionalak. Hamaika urterekin fraide izateko ikasketak hasi zituen. 1962tik geroztik Eibarko Karmeldar egoitzako abade eta fraidea izan zen eta lan handia egin zuen orduan Eibarrera masan joandako etorkinekin: helduen alfabetizaziorako gau-eskolak, zinema haurrentzat, diru-laguntzak presoentzat...

Julio Arbuluri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Hor, Julio, sasoi baten, drogak eta, astindu ederra emon zebeñ herrixan...] Herrixan, bai, ni konturatzeraiño. Zergaittik ni gauza askokin ez nintzan konturatu be egitten. Han, puntan dago, esate baterako, gure etxea, ezta? Eibarren, gure komentua, Karmengo kalean. Ta, esate baterako, grebak edo, manifestazioak edo, haraiño ez ziran heltzen. Beti, han, Arraguetan egiten zuten buelta (...) Gure ezagun familia bat baiño gehiago, asko, ezagutzen giñuzen, oso maitagarriak, eta bat egitten gendun euren dramakin. Gurasoena, batez ere. [Eta zelan lagundu ahal zetsazuen zuek?] Ba, lagundu, eurekin egon eta... [Baiña familia hoiek hori baiño gehixago bihar zebeñ, ez?] Bai, bai, bai. Ez zegoen hoientzako gehiago...

58. Euskal Jaiaren eskutik ekitaldiz betetako asteburua ospatu dugu

Eguraldia lagun, primeran ospatu genuen Eibarko Euskal Jaiaren 58. edizioa. Barixaku arratsaldea Kalian Jolasian eta Tantan ez Tantan ekimenek bete zituzten eta, gauean, Untzagako karpan jarraitu zuten jaia ospatzen, Burutik eta Mugi Panderoa taldeen erritmora. Zapatu goizean, berriz, Artisau eta Baserritarren Azoka, herri-kirolak, bertsolariak, talpostua eta Gautena elkartearen aldeko erronka izan ziren protagonista eta, arratsaldean, GOTx elektrotxarangak animatu zituen kaleak, karpa barruan egin zen kantu-afaria hasi bitartean. Kittu musika taldeak afalostea girotu ondoren, Jainagak eta Narbaizak jarraitu zuten giroa berotzen, goizaldera arte luzatu zen erromerian. Domekan Euskal Jaiko kalejirarekin hasi genuen eguna, Untzagan egin zen Dantza Jaialdiarekin jarraitzeko. Herri-bazkariak, erromeriak eta larrain-dantzak biribildu zuten egitaraua.

ARGAZKI-BILDUMA



FERNANDO RETOLAZA





Ekaineko zapatu goizetarako plana Sosolakoen eskutik

Ordu biko saioak prestatu dituzte gure herriko Sosola baserrikoek. Jardunaldiak "Ibilaldi didaktikoa gariaren artean" izenburuarekin bataiatu dituzte. Ekaineko lau zapatuetarako proposamena da eurena: 3an, 10ean, 17an eta 24an. Goizeko 10:00etan hasi eta eguerdirako amaituko dira saio horiek eta, gehienez jota, 15 lagun hartuko ditu bakoitzak. Hori bai, interesatuek bezperarako eman beharko dute izena.



lazko uztailean egindako gari-jotzearen irudia. SOSOLA



Badira hamar bat urte garia ereiten hasi zirela Sosolan, "60 urteko etenaren ondoren", bertako Enrike Gisasolak dioen bezala. "Ogia egiten dugunez baserrian gari-alea errotan ehotuz, egokia iruditu zitzaigun gariaren laborantza ere berreskuratzea". Horrela, hiru urtetik hona Errezilgo beste bi baserriekin batera, "Solaka eta Irure Txiki", aintzinako gari-mota zaharrekin dihardute lanean. Berak dioskunez, "barietate horiek gerra zibilaren ostean bildu zituzten eta Madrilen egon dira, hazien banku batean". Proiektu horretako helburua da hazi gutxi horiek "lehenengo ugaritu eta, jarraian, okintzan duten portaera ezagutzea".

Gari mota zaharrekin proiektu berrian sartuta

"Guretzat oso garrantzitsua delako egiten dihardugun ekimenaren balio pedagogikoa ustiatzea", dio Gisasolak. "Gure bezero zein bestelako herritarrentzat interesekoa izango dela sinestuta gaudenez, antolatut dugu ibilalditxoak". Egitaraua Arrajola baserrian hasiko da, bertan elkartuko baitira parte-hartzaileak: "Autoak kalean lagatzea eskatzen dugu eta oinez hurbiltzea". Arrajolan dauden sei gari-motak ikusi, behatu eta bereizten saiatuko dira ondoren, eta laborearen gorabeherak azalduko zaizkie "galsoroan bertan bueltatxo emanaz".

Arrajolakoa amaituta, Sosolara joango dira harrizko bidetik, bide berezi horretako gorabeherak azaltzeko eta "gaiarekin duen lotura estua" aipatuz. Sosolan ha-



Lau ibilaldietan diharduten proiektuaren berri gizarteratuko dute Sosolakoeek, helburu pedagogiko batek bultzatuta. SOSOLA

maiketakoa egingo dute bertako gaztai eta ogiarekin. Antolatzaileen asmoetan dago baita “okintza nekazaritzaren egoeraren inguruko gogoeta partekatzearena” ere. Eta 12:00ak aldera amaituko da saioa.

Bakoitzean gehienez 15 lagun hartuko duen ekitaldiaren prezioa 10 eurokoa da. “Umeek doan izango dute eta diru hori proiektua finantzatzeko besterik ez da; zehazkiago esateko, uzta biltzeko makinaren alokairurako”. Izena 686204738 zenbakian eman daiteke, whatApp-ez.

Gari mota zaharrekin proiektu berrian sartuta

Madrildik bidalitako 250 gramorekin hasi zuten bidea: “Kilo batekin 10 kilo gari eman dezake, artoaren kasuan kilo batekin 300 ateratzen dituzunean”. Badira hiru urte multiplikatzeko arlo horretan sartu zirela eta, horregatik, hirugarren urtean, “ondobidean, 20tik 200era pasatzerakoan, ogia ere egin ahal izango da”. Gariaren bidea ireki nahi izan dute horrela, “itxi egin zena berreskuratu eta, etorkizunera begira, irtenbidea sortzeko”.

Sosolan konbentzituta baitaude “gari mota zaharragoekin glutena digeritzeko ere arazo gutxiago izanongo dugula”. Ogi hori jateko hobeia izango delakoan, bestelako fermentazio-motak erabili daitezkeelako. Sasoi hauetan, glutenaren arazoa gero eta gehiago zabaldu denean, Enrikek horren arazoa ogia egiteko

15 laguneko taldeak bilduko dituzte, bi orduko saioetan gari-motak ezagutzeko

Arrajolara
heltzeko



prozesu-aldaketan ikusten du: “Gari modernoa asko `mejoratu´ delako, selekzionatuz eta makinaren lanaren prozesua erraztuz. Okindegietan ere bide beretik jo dute, prozesu azkarrago eta merkeagoen bila... baina horrek guztiak ez du digeritzea zailago egingo?”. Gari-mota zaharragoak erabiliz, glutena digeritzeko arazo gutxiago izango ditugula uste du berak: “Bestelako fermentazio-motak erabiliz, denbora gehiagorekin, jateko ere ogi hobeia izango da”.

Gure aitzitza-amamen sasoiko lan-prozesura buelta egite horretan, aurtun izango da lehenengo urtea gari-jotzea egin, ondoren 2-3 hilabeteko “reposoa” eman eta, errotan pasatu eta gero, ogia egiteko. Iaz, nahikoa kantitate ez zutela-eta, ogi-eta okin-frogak egitearekin konformatu ziren.

Tantanez tantan, ez dadila eten katea!

Aurreko barixakuan ailegatu zen Eibarrera euskararen olatua. Horren egun seinalaturako herriko kaleak euskaltzalez bete ziren, eta ongi etorri beroa egin genion inoiz izan den olaturik erraldoienari. Euskara elkarri eman genion eta, eskuz esku, katea eten gabe iritsi zen helmugara euskaraz eta ilusioz betetako gantxilla. Eibarko euskalgintza osatzen dugun taldeok eskerrak eman nahi dizkizuegu bide bazterrak lepo bete zenituzten euskaltzale guztioi. Bi urte barru berriro itzuliko da olatua Eibarrera, eta, bien bitartean, kateari eutsiko diogu, ez dadila eten!

BIDEOA








ON EGIN!

gida gastronomikoa

2023ko Debabarreneko jatetxe eta tabernen gida

Ondo jateko ere, ez daukagu urrutira joan beharrik. Erreparatu bestela hurrengo bi orrialdeoi. Gastronomía eskaintza paregabea daukagu Debabarrenean, tradizioetik eta modernotik, bietatik duena, eta batez ere, eta bereziki, moko finenak ere gustura uzten dituen. Bokatak, mokadutxoak, eguneko menua, karta... Egin zure aukera, eta on egin!



AGUIÑASPI taberna

Urkizu 22, EIBAR

943 128 086

Menu berezia enkarguz, gosariak, plater konbinatuak, razioak, bokatak, hanburesak, pintxoak...



ALBERT taberna

Miguel Aginaga 6ac, EIBAR

943 383 177

Eguneko menua, asteburuetako menua eta karta.



BAISI taberna

Urkizu 11, EIBAR

943 530 816

Espezialitatea: patata-tortilla, entsaladilla, bokatak, hanburesak... Ardoetan aukera zabala.



BARATZE gourmet

Bidebarrieta 39, EIBAR

943 845 503

Jatetxe-taberna kontzeptu berria, pintxoak, razioak, karta eta ardo aukera zabala. Etxera eramaten dugu.



BIRJIÑAPE BERRIA

T. Etxebarria 16, EIBAR

943 821 341

Eguneroko menua, bokatak, ospakizunak. Zure aurrekontura egokitzen gara. Etxerako zerbitzua.



BOSSA gastroteka

Ego Gain 7, EIBAR

943 206 753

Etxean bezala. Gosariak, pintxoak, bokatak, razioak, pizzak eta hanburgesak.



BURU ZURI taberna

Lersundi kalea, 23, DEBA

943 191 034

Ogitartekoak, plater konbinatuak, gosariak, razioak, pintxo bereziak, Luntxak.



GABI jatetxea

Kalebarren plaza. ELGOIBAR

943 741 230

KM 0 jakiekin egindako sukaldaritza. Jaunartzeak, bataioak, luntxak, eguneko menua, karta, enpresa bazkariak...



IBAI-ONDO jatetxea

Giza Eskubideen parkea, ELGOIBAR

943 256 028

Bazkari tradizionalak, parrilla, enpresa menuak, karta eta eguneko menua.



KILI KILI croissanteria

Ibarkurutze 12, EIBAR

943 202 401

Eguneko menua, menu bereziak, gosariak, pintxoak, bokatak, afariak, txokolatea eta txurroak...



LABATAI taberna

J.M. Ostolaza kalea, 1, DEBA

943 509 910

Gosariak:06:00etatik aurrera, pintxoak, ogitartekoak eta plater konbinatuak.



LANDA jatetxea

Garagartza kalea, 32, MENDARO

943 756 028

Denboraldiko produktuekin egindako karta. Espezialitatea parrillan: haragi, arrainak eta itsaskiak. Ez da afaririk zerbitzatzen.



LUZAIDE jatetxea

Mendarozabal z/g. MENDARO

943 756 166

Eguneko menua 14€ astegunetan. Asteburu eta jaietako menua 17 €. Menu bereziak enkarguz.



SU BEROA taberna

Bista Eder 11, EIBAR

943 477 779

Gosariak, eguneko menua, talde menua, pintxo bereziak, bokatak, karta, razioak...



TIKI TAKA taberna

San Andres pasealekua 2, EIBAR

943 284 006

Eguneko menua, asteburuetako menua, karta, razioak, pintxoak...



TXALTXA jatetxea

Isasi 7, EIBAR

943 201 126

Karta, kartatik kanpo eta menua astegunetan. Astelehenetan itxita.



TXARRIDUNA jatetxea

Ermuaranbide 1, ELGOIBAR

943 740 490

Eguneko menua astelehenetik ostiralera, larunbatetan menu berezia, karta, kintoak, bataioak, familiako bazkariak...



DAVID KARBA

Gurutzea bizkarrean

Orain dela urtebete inguru oraindik burua altxatzen uzten ez didan kolpea jasotzeaz nengo. Azken hilabeteotan erabateko tristura, frustrazioa, kulpasentimendua, depresioa, antsietatea edota motibazio falta agerian jarri zaizkit, neure osasun mentalari larriki eraginez.

Orain dela gutxi Kvalvikaren EP berria izango dena grabatu genuen. Orain nahasketa egiten ari gara eta 2023an argia ikustea espero dugu. Gainera, EPA kaleratu aurretik pare bat kontzertu eskaini genituen, non abesti batzuek azaldutako pasarte hauen inguruan berba egiten duten, eta lehen aldia zen entsegu-aretoetik irteten zirela. Lehen kontzertua tentsioz bizi izan nuen eta urduritasunak gainezka egin zidala aitortzen dut. Bigarrena dezente hobe izan zen eta proiektuan etenaldia egitea ekarri zuten, EPA irten arte erlaxatzeko eta kontzertuak eskaintzeko lasaitasuna hartzeko asmoz, lana behar bezala eta editatua egon arte.

Kontzertu hauek amaitu eta berehala, eta erlaxatuta nengoela pentsatzen nuenean, bertigoak hasi nintzen jasaten etengabe. Horrek estres eta antsietate gehiago eragin dit. Beraz, medikuarengana joan naiz eta fisioterapia saioak jaso ditut. Mediku-proba batzuen ondoren, nahiko argi geratu da bertigo hauek neure burua bukle horretatik ez irtetearen ondorio izan direla. Gaizki egotea, gaizki egotearen inguruan diskoa egitea, gaizki egonik publikoaren aurrean abestiak aurkeztea, eta hori guztia soldata ematen didan beste lan batekin uztartzea. Gutxi gorabehera infernu antzeko batean bizitzea, tunelaren irteeran argia ikusi barik.

Ez nago neure buru-arazoaren inguruan berba egitera ohituta eta honek promozio-taktika iruditu dezake. Neurri batean bada. Izan ere, ezin dut ukatu, editatzen denean, egin dugun lana zuek entzuteko gogo handia izango dudala. Baina batez ere, norbaitentzat lagungarria izan daitekeelako idazten dut testu hau. Orain badakit zergatik gertatzen zaidan hau eta horren inguruan berba egiteko prest nago, gripea izango balitz bezala. Buru-osasunaren meloia ireki beharra dago eta norberak izan behar du lehen hitza.

“Buru-osasunaren meloia ireki beharra dago eta norberak izan behar du lehen hitza”

Laborategi honetan sorkuntza da nagusi

Antzerki Laborategiak bigarren urtea bete du aurten eta hilaren 31n, eguaztenean, ikasturteari amaiera emango diote Coliseo antzokian eskainiko duten saio bereziarekin. Bertan, laborategian parte hartu dutenek ikasturtean zehar ikasitakoa erakutsi ahal izango dute, zenbait antzezlanen bitartez. Sarrerak Coliseoko leihatilan edo Kutxabank bitartez eskuratu daitezke, 3 eurotan.

Eguazteneko saioa 17:30ean hasiko da haurren taldeekin. Bi antzezlan eskainiko dituzte eta 'Gezurrak' da lehenengoaren izenburua. "Publikoari azaltzen diogu batzuetan gezurrak beharrezkoak direla eta beste batzuetan ez, eta zein gezur mota eza gutzen ditugun, adibideak jarritz", azaldu digu Irene Hernando Antzerki Laborategiaren irakasleak. "Ikusleek zenbait ideia hartu ditzakete antzezlanetik, gero euren bizitzan erabiltzeko", gehitzen du.

Umeen bigarren antzezlanak 'Zigortuak' du izenburu. "Zigortuen eskolako klase baten gertatzen den vendetta istorioa da", kontatu digu Hernando. "Ikasleek, zigortuta daudenez, irakasleekiko mendekua hartzen dute. Horretarako, talde bezala ekingo dute eta horrela oso ondo egingo dute lan", bere berbetan.

Haurren taldean LHko 3. mailatik DBHko 1. mailara arteko umeei hartzen dute parte. "Adin horietako



umeak nahastuta daude taldean eta oso harreman ona dute. Euren arteko adin ezberdintasuna igaritzen da, baina nire lana da hori nola eraman asmatzea eta denak dira garrantzitsuak, duten adina dutela. Gero, bizitza arruntean, lanean adibidez, adin ezberdinetako jendea aritzen gara elkarrekin. Beraz, horren aldeko apostua egiten dut”, diosku koordinatzaileak. “Oso ondo portatzen dira, helduak baino hobeto”, esan digu barrez.

Haurren ondoren, helduen taldeen txanda iritsiko da 19:00ak inguruan. Hiru antzezlan eskainiko dituzte eta lehenengoaren izenburua ‘L’enfant’ da. “Familia baten istorioa kontatzen da bertan. Afari bat egingo dute, orain dela lau urte ikusten ez duten alaba datorrela ospatzeko, Frantzian bizi dena. Neskalgunarekin eta haurrarekin dator, baina familiak demaseko sorpresa hartuko du haurra benetakoa haurra ez dela ikustean. Eta ezin dut gehiago aurreratu”, esan digu Hernandok.

Bigarren lana ‘Kutsidazu bidea, Arrate’ izango da. “Izenburuarekin imajinatu dezakegun bezala, ‘Kutsidazu bidea, Ixabel’ lanaren bertsio eibartarra da. Noski, ...eta kitto! agertzen da antzezlanean”, diosku keinu eginez. “Antzezlanean, Jaime Iruñatik dator, eibartzera, eta neska eibartar batez maitemintzen da”, azaldu digu.

Helduen hirugarren lana, eta emanaldiko bosgarrena eta azkena, ‘Hau ez da Joxemari’ izango da. “Istorioa tanatorio batean hasten da. Bertan, hilkutxa bat ikusiko da eta inguruan minduta dagoen familia.



Ikuskizunean adin guzteietako antzezleek hartuko dute parte. MAITANE CAMPOS

**>>> Haurren saioa
17:30ean hasiko da,
bi antzezlanekin; eta
helduena 19:00etan,
hiru obrarekin**

Batzuk benetan minduta daude eta beste batzuk herentzia kontuagatik. Gauza da hilkutxan dagoena ez dela Joxemari. Orduan, denak ohartzen dira hortaz, alarguna ezik, eta bera ez enteratzen saiatuko dira”, aurreratu digu Hernandok.

Taldeei egokituta

Coliseo antzokian, “azken hiru-lau hilabeteetan prestatu ditugun antzezlanak aurkeztuko ditugu”, esan digu Hernandok, “eta hori izango da ikasturtearen itxiera”. Dena dela,



lazko saioko eskarmentua baliagarria izango da aurten antzezleentzat. MAITANE CAMPOS

ikasturtea urrian hasi zuten, Antzerki Laborategiak iaz izan zuen arrakastari jarraipena emanez. “Antzezlanak azken hilabeteetan landu arren, garrantzitsua da urrian hasitako lana eta taldeek berdin jarraitzea, talde bakoitzarekin zer landu daitekeen konturatzzen zarelako”, irakaslearen berbetan. Horren arabera, antzezlanaren gaiak berak ekartzen ditu eta nola egin dezaketen ikusten dute. “Batzuk fisikoagoak izan daitezke, beste batzuk testualagoak, apaingarriz beteak edo atrezzorik gabe. Talde bakoitzaren ezaugarrien arabera erabakitzen dugu zer eta nola egin”, diosku Hernandok. Aipatu, beste-tik, atrezzoak erabiltzen duten taldeek euren kabuz landu behar izan dituztela elementu horiek.

Zer egin erabaki ondoren, “batzuetan eszena batzuk etxean idazten ditut, eta beste batzuetan eszenak klasean sortzea nahi dut, parte-hartzaileek zer eman dezaketen jakin nahi dudalako”, esan digu.

>>> Antzezlan batzuk fisikoagoak izango dira, beste batzuk testualagoak, batzuk atrezzoarekin eta beste batzuk ezer barik

>>> Antzezleek Coliseo antzokian antzezteko duten ausardia azpimarratzen du Irene Hernando irakasleak

Antzezteko ausardia

Hernandok ilusioarekin ikusten ditu laborategiko ikasleak eta baita urduritasun puntu batekin ere eguazteneko saioaren aurrean. “Baina normala da. Ausardia handia dute hainbeste jenderen aurrean antzezten jartzerko”, bere iritziz.

Errebal Plazan astero egiten dituzten saioetan aritzea ere erraza ez dela diosku Hernandok, baina aurten bigarren urtea dute parte-hartzaile gehienek eta, irakasleak dioenez, “esperientzia hori igartzen da”. Bere berbetan, “batzuek diote nahiko juxtu iritsiko direla 31ko saiora, baina iaz lortu bazuten, aurten ere egingo dutela eta lasai hartzen dute”.

Ikuskizunari beldur barik helduko diote. “Hau Antzerki Laborategia da, eta nahita dago izen hori jarrita. Nekagarria da beti ondo edo gaizki egin duzun neurtzea, den-dena zuria edo beltza izatea”, azpimarratzen du Hernandok. Izan ere, gozatzeko aukera ederra izango da, publikoarentzat zein antzezleentzat.

Ipuruako gimnastek 15 domina eskuratu zituzten Gipuzkoako amateur txapelketan

Aurreko zapatuan Azpeitian jokatutako probintziako txapelketetan Ipuruako kadete, jubenil eta senior mailakoek hamabi domina eskuratu zituzten banakako modalitatean eta beste hirutan igo zuten podiumera taldekakoan. Aipatutako domina horietako batzuk, gainera, urrezkoak izan dira: jubenil A-k eta kadete B-k lortutakoez gain, banakakoetan Lia Romanok eta Saioa Rodriguezek txapela jantzi zuten kadeteetan eta gauza bera egin zuten Malen Perezek eta Maria Horcajok jubeniletan. Domeka honetan senior eta jubenil mailetako Euskadiko txapelak izango dira jokoan. Aipatutakoez gain, federatu absolutuen mailan Indira del Pinok zilarra irabazi zuen sailkapen na-



Azpeitian parte hartu zuten amateur mailako kadete eta jubeniletako Ipuruako taldekideak.

gusian eta horrek Espainiako banakako txapelketan parte hartzeko txartela jarri dio eskura.

Azkenik, eskolarteko mailetan ere emaitza onak izan ditu gure herriko klubak: La Salle Isasik Gipuzkoako txapela jantzi du alebin A mailan, Iturburuk brontzea lortzen zuen bitartean. Zapatuan Es-

kolarteko Jokoak izango dira Ordizian. Eta ikasturtea amaitze bidean dagoen honetan gerturatzen doaz Ipuruak sasoi honetan eibartarren gozamenerako eskaintzen dituen ekitaldiak: ekainaren 9an ikasturte amaierakoa egingo dute Ipurua kiroldegian eta 15ean Untzagan Sanjuanetako emanaldia izango da.

10 urteko Ander Unamuno laugarren izan zen Elgetako bolatokian

Hiru txirloko izar berritzat katalogatu dezakegu dagoeneko Asola Berriko bolari gaztearen jarduna jokatzen diharduten 52. Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketan. Zapatuan Elgetan jokatutako txapelketaren 9. jardunaldian bergararra, bost txirlo botata, laugarren izan zen 65 bolariaren artean. Sergio Rodriguez taldekidea nagusitu zen, zazpirekin, eta tartean sailkatu ziren Juan Luis Rodriguez (hau ere Asola Berrikoa) eta San Andreseko Iker Arizmendiarrieta, biak sei txirlorekin. Lau bota zituen Bittor Astigarragak. Txapelketako hurrengo tiraldia, hamargarrena, Lasturren jokatuko da zapatuan, 17:00etan hasita.



Ander Unamuno Elgetako tiraldian lehen postuetan sailkatu ziren beste guztiekin.

Sailkapen orokorreki begira, Asola Berriko Pedro Gomezek jarraitzen du nagusian agintzen, baina puntu bakarrera du San Andreseko Lander Odiaga; Bittor Astigarraga eibartarrak jarraitzen die, hau liderrarengandik bostera. Emakumezkoetan UDAko Isana Gorosabelek jarraitzen du lider. Binakakoan San Andreseko Odiaga eta Oier Azumendi daude goian, atzetik Asola Berriko bikote birekin: Bittor Astigarraga eta Bittor Ugarteburu txirlo bakarrera, eta Gomez liderra eta Gorka Unamuno bira. Taldeka, azkenik, Asola Berrik jarraitzen du agintzen (128), San Miguel (111) eta San Andresen aurretik (101).



Orain dela bi urteko edizioan 350 parte-hartzaile bildu ziren irteeran eta mendi-korrikalariak ere izan ziren tartean.

Ekainaren 3an egingo da Eibarko Itzuliaren 23. edizioa

Bi urtean behin egiten duten bezala, Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordeak Eibarko Itzuliaren edizio berri bat egingo du, oraingoan datorren asteko zapatuan, ekainaren 3an. Egun horretako irteera goizeko 07:00etan hasiko da, Deporretik bertatik abiatuta. Itzulia doan da, baina anoa-postuak antolatzeko izena ematea eskertzen da. Horretarako formulario hau erabili daiteke: <https://labur.eus/eibarkoitzulia>. Bestalde, kamisetak Klub Deportiboan daude salgai, 7 eurotan, martitzenetik barixakura, 18:00etatik 20:00ak arte.

Itzuliak 35 kilometroko luzera izango du eta Eibarko perimetroa inguratuko du, mendigain guztietatik pasatuz. Pilatutako desnibela, “gorantza zein beherantza”, bi kilometrotik gorakoa da: 2.240 me-

trokoa. Badago B plana ere, 18'6 kilometrokoa, eta ibilbidearen erdia bakarrik egin nahi duenak Azitain auzoan amaitu dezake. Ibilbidea puntu horiekin, zintarekin eta seinaleekin markatuta dago, herrigunean izan ezik. Eta ohiko ibilbidean aldaketa txiki batzuk egin dituzte: “Asfaltoko ibilbidea murriztu nahi izan dugu eta, udal-brigadaren lanari esker, ezkutuko bide batzuk garbitu eta beste batzuk zabaltu dira; beraz, probako beteranoek igarriko dituzte aldaketok”.

350 parte-hartzaile 2021ean

Ibilbidearen nondik norakoa ondorengoa izango da: Olarreaga, Egoarbitza, Azkonabitza, Galdaramiño, Asurtza, Azitain, Arrate, Akondia, Kalamua, Usartza, Ixua, Urko, Lindari eta Amaña. Azken

edizioan, 2021ekoan, probak beste mugarri bat ezarri zuen, 350 parte-hartzaile izan baitzuten, “baita inguruko herrietatik etorritakoak ere; azken edizioetan, gainera, mendi-korrikalariak ere gero eta gehiago dira”, diote mendi batzordekoek.

Ekainaren 3ko irteera neutralizatua izango da, korrikalari guztiak horretarako jarriko den zintaren atzetik joan beharko dira Olarreagaraino. Bi anoa-postu egongo dira: bata Goimendi auzoko Gure Base-txea txabolan eta bestea Arrateko Santutegian. Klubeko taberna ere irekita egongo da eguerditik aurrera, itzulia egin ostean zerbait hartu nahi duten guztientzat. Eta, inguruarekiko errespetua lantzeko bidean, norberak edarientzat bere ontzia eramatea gomendatzen dute.

PUBLI RESA
objeto publicitario

merchandising
serigrafía
lanerako erropa

www.publiresa.com
publiresa@publiresa.com
943 701 497 / 615 799 419
Imagin, 3-5 behea

kili klik
argazkilaritza fotografia

646114443 • kili_klik
killmaksortzen@gmail.com • Indalecio Ojanguren 1

Domekan emakumezkoen V. Eibar Hiria Sari Nagusia jokatu da

UCI Womens Elite Classics 1.1. mailako lasterketa antolatu du bosgarrenez Eibarko Txirrindulari Elkarteak eta hor izango dira Espainiako 11 talderekin batera, Frantziako hiru eta AEB, Kolonia, Portugal eta Arabiar Emirarretako bana. Ez da faltako iaz azken edizioan irabazi zuen UAE taldeko Olivia Baril kanadarra ere: “Espainiako Itzulian eta Itzulia Women-en hartu du parte azken aldian eta bietan goi mailan jardun du”, diote antolatzaileek.



Olivia Baril izako edizioko irabazlea probaren irteera puntuan izango da berriro ere.

Etziko lasterketa goizeko 10:00etan abiatuko da Untzogatik eta martxa neutralizatuan joango dira Azitainera arte, bertan irteera egiteko. Aurretik, 09:00etatik, Untzagan aurkeztuko dira izena eman duten 18 taldeak eta 09:50ean zinta moztuko da. Txirrindulariek 112,3 kilometroko ibilbidea osatuko dute eta, 3. mailako Itziar, Meagas eta San Miguel gainak atzean lagata, T. Etxebarrian kokatutako helmugaren

bila joango dira. Lehenengoaren iritsiera, “bataz beste koaren arinerari jarraituz, 12:45erako espero da”.

Eibarko Txirrindulari Elkarteak Untzaga Plaza Hoteleko eta Untzaga Jubilatuta Etxeko lokaletan lasterketarako bulegoak antolatzeko emandako erraztasunak eskertu nahi dizkie. Lasterketa bere osotasunean ikusi ahal izango da klubaren web orrian: www.clubciclistaeibarres.org

Urbatek 13-14 galdu zuten Ligako finalean partidu handi baten ondoren

Partiduaren egoera bat kudeatzen ez asmatzeak Urbat waterpoloko talde nagusiaren porrota ekarri zuen aurrekoan Orbean Askartzaren aurka jokatuak norghegiagoka erabakigarrian. Jon Trebiñoren hirugarren kanporaketa eta erasokorreko trantsizioan izandako desorekak eraman zuen partidua azkeneko 13-14ra. Hala ere, jendeak txalo artean agurtu zituen talde biak. Zapatuan Urbaten es-

piritu borrokalaria izango da berriz ere bere armarik esanguratsuenak Askartzan Mallorcaren aurka jokatu duen 2. maila nazionalera igotzeko lehian.

Senior mailako bigarren taldeak, bestalde, denboraldian izandako hobekuntza erakutsi zuen beste behin eta, partidu bikaina eginez, 8-6 irabazi zion Sestao talde txapeldunari. Kadete mailako Eibarko taldeak 10-15 galdu zuen sailkape-



neko lehenengoarekin eta, azkenik, infantil mistokoen neurketan Urbatek 11-8 garaitu zuen Larraina.

Errugbiko Erreginaren Kopa hartuko du Unbek asteburuan bigarrenez jarraian

Bihar eta etzi Unbek Errugbi 7ko Erreginaren Kopako bigarren jardunaldia hartuko du, estatuko errugbi modalitate horretako talde onenen parte-hartzearekin. 12 talde dihardute lehian hiru serietan banatutako txapelketa horretan. Aurreko asteburuan Valladoliden jokaturako lehenengoan eibartarrek Cisnerosi eta Turiari irabazi zieten, ondoren Universidad de Sevillarekin galdu eta bosgarren amaitzeko une honetako sailkapenean. Asteburu honetakoaren ondoren, azken jardunaldia Madrilen

jokatuko dute ekainaren 10/11ko asteburuan.

Eguaztenean egin zuten Eibar-koaren aurkezpena udaletxean eta gaur, 19:30etik aurrera, harrera egingo zaie kanpotik datozen talde guztiei Untzagan. Bestalde, biharko egitarauak partiduak hartuko ditu 10:00etan hasi eta 17:45era arte, horren ondoren musika jaialdiaz gozatzeko 19:30ak arte. Domekan, azkenik, partiduak 09:00etan hasiko dira eta 16:45ean amaituko, gero sariak banatu eta musikarekin jarraitzeko.



Sant Cugat, Turia, Hortaleza, ADI Industriales, Universidad de Sevilla, Jabatas de Mostoles, Sanse Scrum, Energimac Majadahonda, CRAT Residencia Rialta, complutense Cisneros eta Olimpico Pozuelo dira parte hartuko duten taldeak eta partidu guztiak 14 minutura jokatuko dira. Guztira zapatuak 18 norgehiagoka hartuko ditu eta domekak beste 16. Emakumezkoen errugbi onenarekin gozatzeko aukera izango da, beraz, doaneko sarrera eskainiko duen lehiaketan.



Herenegun goizean egin zuten torneoaren aurkezpena udaletxean.

Zure negozioa garatzeko arlo ezberdinetan aholkularitza adituaren bila zabilta?

EHUNDU
EKINTZAILTZA PROGRAMA

+ 80 orduko aholkularitza, zuk erabakitako galetan

EMAN IZENA!

Debegesa

EHUNDU

BIHARRI GORRI

“Misterio zalea izanik, neronek irakurriko nukeen zerbait idatzi nahi izan dut”

ANDONI AGIRREZABALA • Idazlea



Etxe Berdea lehen eleberria kaleratu zuen iaz Andoni Agirrezabalak (Alegia, 1998). Nobela beltza da, eta gertakizun tragiko bat du oinarrian: poliziaren bertsio ofizialak konbentzitu ez eta bere kabuz ekingo dio herriko aguazilak herrian gertatutakoa ikertzeari. Esperientzia polita izan da liburu hau idaztea Andonirentzat, misterioko istorioak irakurtzea oso gustuko du eta idazketa-prozesuarekin gozatu du. Harixa Emoten irakurketa-taldean egon zen martitzenean, irakurleekin batera eleberriari mamia ateratzen.

Misteriozko istorioak hain gustukoak izanik, gozatu duzu idazketa-prozesuarekin?

Orokorrean, asko gozatu dut idazten. Prozesuan zehar gorabeherak izatea normala dela esango nuke, baina lortu dut disfrutatzea. Liburuak gertakizun tragiko baten bueltako istorioa gordetzen du, non misterioa izango den ardatz nagusia. Irakurleak misterioarekin topo egingo du, ez bakarrik gertakizuna argitzen doan heinean, baita eszenatokiaren deskribapenetan edo pertsonaien jarreretan ere, eta hori gauzatzen gozatu dut gehien. Irakurle moduan misterio zalea izanik, nire helburua zen neronek irakurri nahiko nukeen zerbait egitea. Lortu dudalakoan nago eta gustura nago horregatik.

Liburua testigantza-bilduma da. Zergatik egitura hori? Zerk eman dizu lan gehien?

Aurkitutako eskuizkribuaren *found footage* teknika erabili dut istorioa osatzeko garaian; hau da, irakurleak liburua irekitzen duenean, eskuizkribu edo dokumentu multzo batekin topo egingo du. Dokumentu horiek lekuko ezberdinen testigantzak dira, gertakizun tragikoaren inguruko informazioa eskainiko dutenak. Beraz, irakurleak banan bana irakurri beharko ditu testigantzak kasua argitzera iritsi nahi badu. Gehiegi pentsatu

gabeko hautua izan zen egitura hori erabiltzearena, naturalki egindakoa, iruditu zitzaidalako mesede egiten ziola transmititu nahi nuen horren irisgarritasunari. Egitura hau erabiltzeak pertsonaia bakoitza eraikitzen lagundu dit, bakoitzaren izaera ondo desberdintzen, eta indarra eman dio horrek istorioari. Aldi berean, pertsonaia bakoitzaren ahotsak desberdintze-prozesu hori izan da lan gehien eman didana.

Herriko aguazilak ere paper garrantzitsua betetzen du, ezta?

Herriko aguazila da liburuaren egilea. Berak aukeratu ditu lekukoak, berak jaso ditu haien testigantzak eta berak antolatu du dokumentu multzoa, karpeta batean gorde aurretik. Irakurleak liburuarekin jasotzen duena karpeta hori da, lehenengo orrian azaltzen den moduan. Aguazila, ikertzaile ez ezik, lekuko ere bada; maizen agertzen dena, gainera. Horregatik pentsa liteke protagonista nagusia dela, baina kontua ez da hain halakoa. Izan ere, lekuko bakoitza da bere testigantzetako protagonista. Bestetik, badago, lekuko izan gabe, pertsonaia nagusien taldean sartzen den beste norbait ere. Irakurleak deskubritu dezala gainontzekoa.

Trama ez dago itxia eta irakurleari irakurketa aktiboa egiteko proposamena egiten diozu.



“Sare sozialen bitartez etorri zitzaidan eleberria argitaratzeko aukera”

Testigantza batetik besterako bidean, irakurleak bere ondorioak atera beharko ditu. Alegia, irakurleari dago-kio lekuko bakoitzaren informazioa prozesatzea, oker dabilen ala ez erabakitzea, sinetsi ala ez sinestea... Adi ibili beharko du, beraz, orrialde bakoitzean.

Agertokiak ere garrantzi handia du eleberrian. Zein lekutan inspiratu zara?

Eraiki nuen lehena, pertsonaien edo istorioaren aurretik, agertokia izan zen. Alegiakoa naiz, bertan jaioa eta hezia, eta haurtzaroan ondo errotuta dauzkadan zenbait leku, txoko eta atmosferen inguruan idatzi nahi nuen. Nire haurtzaroko Alegian inspiratu naiz agertokia erakitzerakoan, beti ere fikzioa lagun izan dudalarik, noski.

Misterioaz gain eleberriak baditu elementu fantastikoak ere. Zer dela-eta?

Gustuko dut fantasia literaturan, naturalki egindako hautua izan da. Herri txikietan beti egoten da kondairaren bat elementu fantastikoekin, eta istorio honek ere badu berea. Hala eta guztiz ere, irakurle bakoitzak erabakiko du elementu fantastiko horiei zenbaterainoko garrantzia eman, amaierara iritsi eta ondorioak ateratzen dituenean.

Zure lehenengo lana izan da. Nola hartu dute irakurleak? Zer erantzun jaso duzu?

Harrera ona izan du liburuak eta oso gustura nago. In-guruko askorentzat ezustea izan zen, gertukoenek soil-lik baitzuten nire idazteko afizioaren berri. Pixkanaka erantzunak jaso ditut eta positiboak izaten ari dira. Uste dut irakurleak jaso duela transmititu nahi nuena, eta hori oso pozgarria da.

Nola sortu zitzazuizun eleberria argitaratzeko aukera?

Sare-sozialek erraztu zidaten lana, Twitterrek hain zuzen ere. Bertan, Erein argitaletzeko editoreak, Uxue Razquinak, txio bat idatzi zuen polizia-nobelak edo antzekoak jasotzeko prest zegoela esanez. Nik ordurako istorioa idatzita neukan, eta bidali egin nion. Horrela hasi zen guztia.

Ikasketaz biologoa zara; nondik datorkizu idaztearena?

Lan zientifiko bat osatzeko eta fikziozko nobela idazteko prozedura oso desberdinak erabiltzen badira ere, horrek ez du esan nahi zientzia eta literatura elkarrengandik urrun daudenik. Zientziak egiaren atzetik jarduten du metodo zientifikoaren bitartez; literaturak, aldiz, beste bide batzuk igarotzen ditu helburu bera lortzeko. Fikzioaren idazketa ariketa baliagarria da, adibidez, norbera eta norberaren ingurua ezagutzeko; eta oro har, mundua ulertzen laguntzen duen praktika bat da. Nire kasuan, Biologia ikasten hasi nintzen natura maite nuelako, eta idazten dudanean sentimendu hori presente izaten dut askotan. Bestalde, etxean irakurzalez inguratuta nago.

Idazle moduan irudikatzen duzu zure etorkizuna? Zerbait duzu esku artean?

Egun, banabil zerbaiti forma ematen, idaztea afizio baitut eta nire egunerokotasunaren parte baita. Ezer esateko goizegi da, ordea.



“La patria prometida” liburuaren aurkezpena

“La patria prometida. Aberrigabeak” liburua aurkeztuko du Josu Bingen Fernandez Alcalde soziologo eibartarrak eguenean, 19:00etan Portaleko areto nagusian. Arte Activa argitaletxeak kaleratu duen lana diktadura frankistaren aurkako borroka luzeari buruzko thriller historiko oso berezia da, benetako gertaeretan eta pertsonaietan (eibartarrak gehienak) oinarritutakoa. Trantsizio garaiko borroka antifrankista erakusten du bere 750 orrialdeetan. Egileak azaldu duenez, “gatazka latz eta luze hura bizi izan zuten edo haren ondorioak pairatu zituzten batzuen ikuspegiengandik multzoa da”. Duela lau hamarkadatik Berriz bizi den eibartarrak hiru liburu berri argitaratu ditu, ia aldi berean: Eibarren aurkeztuko duenaz gain, ‘El Segundo Cerebro’ eta ‘Un Latido Menos’ ere idatzi ditu.



Argazki-erakusketak bisitatzeko azken egunak

Domekan itxiko dituzte Argazkilaritza Maiatzean ekimeneko erakusketak, baina ordura arte ikustera joan daiteke: Portalean Enric de Santos, Natxo Zenborain, Rober Astorgano eta Aitor Aranaren lanak daude; Topalekuan, Oskar Bagliettorenak; Portalea tabernan, Klub Deportiboko Argazki Taldearenak; Deporren, iazko Argizaiola lehiaketakoak; eta Untzagako jubiletxean XL. Nazioarteko Gipuzkoa Sarikoak.



Untzaga plazaren bilakaera biltzen duen liburua kaleratuko du Ego Ibarrak

Aurten emango du argitara Ego Ibarra Batzordeak Javier Martin Lapeyra ikerlariak Untzaga plazari buruz egin duen azterlana. Gure herriko plaza nagusiak 1896tik 2010era izan dituen aldaketa guztiak jaso ditu eibartarrak: “Untzaga plaza goitik hartuta egongo balitz bezala daude Javier Martinek eskuz egindako marrazkiak, 1896, 1916, 1936, 1956, 1976 eta 2010ean plazan zer eraikin, altzari edo azpiegitura zegoen jasota eta bakoitzaren deskripzioarekin lagunduta. Horrez gain, hidrografiari buruzko zertzeladak eta gerra zibilak hainbat eraikuntzatan egindako kalteen aipamena ere egiten du”. Urteetako ikerketa-lan sakona bilduko duen liburuan marrazkiak koloreztatuta azalduko dira eta, Ego Ibarren arabera, “horrez gain, Udal Artxiboko argazkiak eta planoak, baita beste leku batzuetatik jiratutako argazkiak ere, marrazkien lagungarri eta deskripzioaren isla gisa. Une honetan edizio-lana ari da garatzen eta abenduan ikusiko du argia”.

Trantsizio ekologikoari buruzko hitzaldia eguaztenean Portalean

Eguaztenean, maiatzaren 31n, “Trantsizio honetarako baliabideak al daude? Posible al da hazkunderde berdea?” izenburuko hitzaldia egingo da Portalean (3. solairuan), 19:00etan. Eibarko Gerrarik Ez taldeak, Aplanetak eta Bilboko Lumaltik Herriak-ek antolatutako saioan Antonio Aretxabala geologo eta ikertzaileak egingo du berba.





Kaleko kontzertu indartsua eskainiko du Musika Bandak

Erritmo biziko kontzertua eskainiko du bihar Eibarko Musika Bandak, Andoni Vazquez zuzendariak esan digunez. Emanaldia 19:30ean hasiko da, Toribio Etxebarria kalean, eguraldia lagun. Bestela, euria eginez gero, Errebalen egingo dute. Zuzendariak esandakoari jarraituz, kontzertuan askotariko piezak joko dituzte, eta “amaiera metaleroa” izango du. Hasteko, R. Hernandezen ‘El Cumbachero’ joko dute, “musika latinoa” zuzendariaren berbetan. Gero, L. Bernsteinen ‘West side story’, “oso polita dena”. Eta amaitzeko, rock doinuak eskainiko dituzte. Hasteko, The Beatlesen ‘Hey Jude’; gero, Jon Bon Joviren musikaren mix bat; eta, azkenik, ‘Metal!’ izeneko saioan, Black Sabbath, Iron Maiden, Scorpions eta Ozzy Osbourneren abestiak joko dituzte.



Nele Dantzak hiru emanaldi eskainiko ditu Coliseon

Nerea Lodosak zuzentzen duen Nele Dantzak ikasturte amaierako emanaldiak egingo ditu hiru egunetan, ekainaren 1ean, 2an eta 3an, 19:30ean. Sarrerak Coliseoko leihatilan (astelehen eta barixakuetan, 17:30-19:30) edo, bestela, Kutxabanken eskuratu daitezke.



“Un amor de verano” filmari buruzko zine forum saioa

Pagatxa emakume elkarteak, Udaleko Berdintasun Zerbitzuarekin elkarlanean, antolatutako zine forum saio berrian proiektatuko den filma Catherine Corsini zuzendariaren “Un amor de verano” izango da, eta 18:30ean hasiko da, Portalean. Beti bezala, sarrera librea eta doan izango da. Filmaren ostean solasaldia egingo da, Izaskun Rodriguez Elkorok zuzenduta.

Martitzenean aurkeztuko du Sanchez Vallejok azken liburua

Juan Sanchez Vallejo psikiatra eibartarrak “Jubilación... ¿nueva vida?” izenburuko liburu berria aurkeztuko du Portalean, martitzenean 19:00etan. Aurreko lanak bezala, hau ere Ediciones Atlantis-ekin eman du argitara eta oraingoan jubilazioaren gaiari heldu nahi izan dio, erretiroa hartzeko orduan pertsona bakoitzak izaten duen jarrerei arreta ipinita: “Asko daude lana lagatzeko irrikitan, baina badira ordu libreak nola bete ez dakiten beste batzuk ere”.



Asier Errasti film laburren jaialdirako izen-ematea zabalik

Uztailaren 14ra arteko epea dago Asier Errasti Film Laburren Jaialdian izena emateko. Lehiaketak bi atal ditu (fikzioa eta animazioa) eta lehiaketara aurkeztutako lanak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerakoak izan beharko dira. Izen-ematea Internet bidez egin behar da, Udalaren webgunean.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	9	3				4	6
7				6		5	
			4			3	2
		9	2			7	1
	1						9
4	7			9	6		
	2	4		5			
	5		8				9
9	6				2	1	

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8


soluzioa

**S
U
D
O
K
U****ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

	5	8		3	6			
			4			3		
				9	8	5	6	7
	2		5					6
		9				8		
6				3			4	
5	7	4	8	6				
		3			9			
			3	7		4	8	

soluzioa

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8

LABIRINTOA

Maiatzak 26 / Ekainak 1

BARIXAKUA 26

DANTZA

19:30 "2100 Kaxa", ikasturte amaierako emanaldia. 3 euro. Coliseo.



ERRUGBIA

19:15 GPS7 Errugbiko Erreginaren Kopa. Talde argazkia eta luntxa. Untzaga.

ZAPATUA 27

ERRUGBIA

10:00/17:45 GPS7 Errugbiko Erreginaren Kopako partidu azkarrak. **18:00/19:30** Musika. Unbe.

MUSIKA

19:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Zuzendaria: Andoni Vazquez. T. Etxebarría (eguraldiaren arabera, Errebalera pasa daiteke).



DOMEKA 28

ERRUGBIA

09:00/06:45 GPS7 Errugbiko Erreginaren Kopako partidu azkarrak. **17:00** Sari-banaketa. **17:30/19:30** Musika. Unbe.

TXIRRINDULARITZA

10:00 V. Eibarko Hiria Sari Nagusia (Womens Elite Classics). Untzaga.

MARTITZENA 30

BISITA GIDATUA

16:30/17:30 Andretxea ezagutzeko. Andretxea.

LIBURU AURKEZPENA

19:00 Juan Sanchez Vallejoren "Jubilación... ¿nueva vida?". Portalea.



EGUAZTENA 31

HITZALDIA

17:00/18:30 Treba gurasoak: "Consumo de sustancias. ¿Qué puede hacer la familia?, Ortzadar elkartearen eskutik. Portalea.

ANTZERKIA

17:00 Antzerki laborategiaren ikasturte amaierako emanaldia (umeak). **19:00** Helduen emanaldia. 3 euro. Coliseo.

HITZALDIA

19:00 "Trantsizio honetarako baliabideak al daude? Posible al da hazkunde berdea?", Antonio Aretxabala geologo eta ikertzailearen eskutik. Antolatzaileak: Eibarko Gerrarik Ez taldeak, Aplanetak eta Bilboko Lumaltik Herriak. Portalea (3. pisua).

DANBORRADA

19:00 Umeen entsegua. **20:00** Helduen entsegua. Beistegi eraikina (Bittor Sarasketa).

EGUENA 1

LIBURU AURKEZPENA

19:00 Josu Bingen Fernández Alcalderen "La patria prometida. Aberrigabeak". Portalea (areto nagusia).



DANTZA

19:30 Nele Dantza. Talde ezberdinen emanaldiak. 3 euro. Coliseo.

ERAKUSKETAK

Maiatzaren 28ra arte

ARGAZKILARITZA

MAIATZEAN:

- **ENRIC DE SANTOS, NATXO ZENBORAIN, ROBER ASTORGANO, AITOR ARANA** (Portalea)
- **OSKAR BAGLIETTO** (Topaleku)
- **Eibarko Klub Deportiboko ARGAZKI TALDEA** (Portalea taberna)
- **ARGIZAIOLA 2022** (Portalea taberna)
- **XL: NAZIOARTEKO GIPUZKOA SARIA** (Untzagako jubilatutako etxea)

Irailaren 1era arte

"TAILERRETIK BULEGORA.

EIBARKO PRODUKTUAK".

(Armagintzaren Museoa)

Eskualdeko Agenda

ELGOIBAR

26an (BARIXAKUA)

ANTZERKIA

20:30 / Herriko Antzokia

"Bizitzaren maskaradak"



ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **27an:** 16:30, 19:30, 22:30
- **28an:** 17:00, 20:00

“Las ocho montañas”
DRAMATIKOA



2022/Italia/147'
Zuzendaria: Felix V. Groeningen
Aktoreak: Luca Mafrinelli,
Alessandro Borghi, Filippo Timi
Drama / Adiskidetasuna

2 ARETOA

- **27an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **28an:** 17:00, 20:00
- **29an:** 19:30 (1 Aretoa)

“Las buenas compañías”
DRAMATIKOA



2023/Espainia/93'
Zuzendaria: Silvia Munt
Aktoreak: Alicia Falcó,
Elena Tarrats, Itziar Ituño
Drama / Nerabezaroa

ANTZOKIA

- **27an:** 16:30, 19:30, 22:30
- **28an:** 17:00, 20:00
- **29an:** 19:30 (2 Aretoa)

“La sirenita”
ABENTURAZKOA



2023/AEB/120'
Zuzendaria: Rob Marshall
Aktoreak: V. Halle Bailey, Javier
Bardem, Melissa McCarthy
Fantastikoa / Musikala



**Jose Maria
Uria Olabarria**

1. URTEURRENA
2022/05/26

**“Beti izango
zaitugu gogoan”**

- ETXEKOAK -





**Arrate
Urzuriaga Bollar**

4. URTEURRENA
2019/05/14

**“Beti izango
zaitugu gogoan”**

- ETXEKOAK -



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **MIKEL**, Mondragon, bixar 9 urte beteko dozuzelako. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **AITANA**, martitzenian 4 urte bete zenduazena-eta. Musu bat aitxitxa, amama, Markel eta Maialenen partez.



Zorionak, **NAHIA!**, martitzenian 10 urte bete zenduazena-eta. Musu potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **KEPA!** Urtetxua betetzen dozula gaur, pitxin! Segi oin arte bezain alai. Patxo erraldoia famelixa guztiaren partez, politta.



Zorionak, **MARKEL!** Hillaren 24an 9 urte bete zenduazena-eta! Musu poloto bat etxekuen partez!



Zorionak, **MALEN**, hillaren 24an 4 urte bete zenduazena-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, zure aizpa Paulen partez.



Zorionak, **NIKOLE**, atzo zure eguna izan zalako. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Martinen partetik.



Zorionak, **CLAUDIA**, hillaren 22xan 11 urte bete zenduazena-eta. Musu pillua aitta, ama, aitxitxa, amama eta zure anaia Jonen partez!!



Zorionak, **ELENA**, gaur zure eguna dalako. Ondo-ondo pasa! Eskerrik asko beti hor egotigaittik.



Zorionak, **PAULTXO!** Martitzenian 2 urte! Segi horren alaixa eta autentikua izaten. Musu erraldoia famelixakuen partez.



Zorionak, **EKHI**, eguaztenian 11 urte bete zenduazena-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **AITOR!!** 10 urte!! Patxo erraldoi bat ama, aitta eta Enekoren partez.



Zorionak, **ANAITZ**, etxeko gure txikitxuak atzo 5 urte eder bete zittuan-eta. Etxekuen eta, batez be, **UNAX**en partez!



Zorionak, **MALEN** eta **ENEKO**, hillaren 29xan 8 eta 4 urte beteko dozuez-eta. Musu erraldoi bana eta eskerrik asko zuen pozarengaittik!! Ama eta aittaren partez.



Zorionak, **IZARO**, zure 11. urtebetetziaren. Musu haundi bat etxekuen partez.

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisua salgai Legarre dorrean. 626719802.
- Pisua salgai Txaltxa Zelai kalean. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 5. pisua, igogailuarekin. 677592475. Joseba.
- Pisua salgai Zuloagarren kalean. 7. solairua. Fatxada eta teilatua berriztu berriak. 235.000 euro. 660378181.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez, ospitalean eta asteburuetan ere. 613073936.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 610067042.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 663937822.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko etabar. 688805742.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 631319476.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 625200924.

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 608401590.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. 667425331.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile bezala. 617630178.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 691632453.

4.2. Langile bila

- Administratibo komertziala behar da arratsaldez lan egiteko. Bidali curriculum-a: akomertziala@gmail.com
- Dendaria behar da Eibarko moda-denda batean. Jornada erdiz (goizez). Bidali curriculum-a: eibardenda@yahoo.com
- Pertsona behar da idazkari-lanak, errekaduak etabar egiteko. 622183411. luengo41@gmail.com
- Bertiz kafetegi eta okindegi baterako titularrak behar dugu. Beharrezkoa: autonomoetan alta ematea eta euskeraz egitea. Lokal guztiz egokitua, eguneko ordutegia eta bermatutako onurak. 622370200. Yarighouse@gmail.com

- Fisioterapeuta (edo osasun arlokoa) behar da Eibarko klinika baterako. Curriculumak bidali: urreibar@hotmail.com
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 699024156.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Lan bila

- Ohe-artikulatu geriatrikoa salgai. Oso egoera onean. 667938638.

VOTA/BOZKATU

PSE-EE
PSOE




ZU ZARA
EIBAR
ERES TÚ




**Jon
Iraola**

CANDIDATO A LA ALCALDÍA
ALKATEGAIA

 @joniraolairiondo |  Jon Iraola Iriondo |  @IraolaJon

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2
Tel. 943 20 41 94
Fax. 943 82 00 06
egurenyasociados@gmail.com

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.es
consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)



JOSU MENDICUTE RODRIGUEZ

Eibarko alkatezarako hautogaila

EIDER MENDOZA LARRAÑAGA

Gipuzkoako diputatu nagusirako hautogaila

Aurrera, batera!
Eibar



eaj
pnv